

azpeituanzer?

udal aldizkaria

194. zenbakia

500.000€
HERRIKO SEKTORE
EKONOMIKOAK
BULTZATZEKO

TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailetza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zaborteia	943 15 18 75

BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Maiatzak 7, 14, 15, 16, 21 eta 28

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Maiatzak 3, 8, 9, 10, 17, 24 eta 31

ARTETXE-BASTIDA

Urbitearte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Maiatzak 1, 2, 4, 11, 18 eta 25

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Maiatzak 6, 13, 20, 22, 23 eta 27

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Maiatzak 5, 12, 19, 26, 29 eta 30

ALE HONETAN ZER?

Langabezia.....	3
Langabetuentzat zerbitzuak.....	6
Sustapen ekonomikorako laguntzak	8
Laguntza lerroak.....	10

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala.
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Maketazioa:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

AZPEITITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONOAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN



INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!



Gizakiak Ekainera bizitzera joan aurretik hartzak bizi omen ziren kobazuloan. Gizakiak bertara joan zirenean hartzen marruek (oihuek) beldurtu, eta inguruko sastraketan ezkutatu omen ziren.

Halako batean zaldi handi bat agertu zen kobazulo aurrera, eta hartzak berriro ere kobazulotik atera eta marruz erantzun zion. Zaldia, hala ere, ez zen beldurtu eta atzeko hankekin sekulako ostikada eman zion hartzari. Hartza kobazulotik mendi aldera abiatu zen haserre eta gizakiek aukera hori baliatu zuten kobazulora sartzeko. Zaldi handi hari eskerrak emateko kobazuloko hormak zaldien irudiz margotzea erabaki zuten gizakiek.

LANGABEZIA DATUAK

ESKUALDEKO, GIPUZKOAKO ETA EAEKO LANGABEZIA TASA BAINO BAXUAGOA DU AZPEITIAK

Martxoko Azpeitiko langabezia tasa %8,5ekoa izan da martxoaren bukaeran; eskualdeko, Gipuzkoako eta EAEko tasa baino baxuagoa da.


Martxoko datuen arabera, Azpeitiam %8,5ekoa da langabezia tasa. Zehazki, 625 langabetu daude herrian. Langabe asko izanagatik, eskualdeko, Gipuzkoako zein Euskal Autonomia Erkidegoko ganbabezia tasa baino baxuagoa da. Izan ere, Urola Erdiko langabezia % 8,9koa da, Gipuzkoakoa %9,9koa eta EAEkoa %12,1ekoa. EAEko Azpeitiaren tamainako beste hainbat herriekin alderatuz gero, Azpeitiko langabezia tasa, tasarik baxuenetakoa da.

Hala ere, Azpeitiko Udalak lanpostuen sorrera bultzatzeko eta sustatzeko konpromiso osoa du. Bide horretan, 625 langabe horientzat atentzio pertsonalizatua eta orientazio zerbitzuak eskaintzen ditu Iraurgi Berritzen garapen agentziaren bidez.


INDUSTRIAREN INDARRA

Azpeitiko ekonomiaren motorra industria eta industriari loturiko zerbitzuak dira. Hala, aipagarria da industriak (%31,97) eta eraikuntzak (%6,26) gordetzen duten pisu erlatiboa nabarmena dela Azpeitian. Izan ere, industriaren pisu erlatiboa, Gipuzkoan baino ia %10 puntu nabarmenagoa da Azpeitian.


Martxoko Azpeitiko langabezia, generoaren arabera




Langabezia tasaren bilakaera




Azpeitiko langabezia tasaren bilakaera urtez urte




Industria sektorearen balio erantsi gordina (%)



Martxoko langabezia tasa



Sektoreen pisua



LANGABETUEI ATENTZIO PERTSONALIZATUA ESKANTZEN ZAIE, ORIENTAZIO ZERBITZU ETA ENPLEGU ZENTROAREN BIDEZ

Herriarren kezka nagusienetarikoa da langabezia. Ezegonkortasun eta ezjakintasun handiko hilabeteak izaten ari dira azken aldian; baita ekonomia eta lan munduan ere. Egoera horrek, langabeziari aurre egiteko baliabideek gero eta garrantzia gehiago izatea dakar. Bide horretan, Azpeitiko Udalak, Iraurgi Berritzen Garapen agentziaren bidez, hainbat zerbitzu eta baliabide eskaintzen ditu herrian. Enplegu eta prestakuntza garapenerako tokiko politika integralak garatzeko baliabide ugari ditu Udalak: Hala nola, enplegu zentroa eta orientazio zerbitzua eskaintzen ditu langabeentzat edo lanez aldatu nahi duten pertsonentzat. Zerbitzua bi alor nagusitan bereizten da: Enplegu eta Orientazio zentroa.

Enplegu Zentroaren helburu nagusia da bertara joaten diren herritarrei eskualdean dauden lan eskaintzen inguruan informazioa eskaini eta bilaketa aktiboan laguntzea. Bestalde, lan eskaintzetan izena ematen laguntzeaz gain, Curriculum eta aurkezpen gutuna prestatzen ere lagun-

tzen zaie bertan. Enplegu zentroa astelehen, asteazken eta ostiraletan izaten da 9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara, Sindikatu Zaharreko azken solairuan.

Orientazio Zentroaren bidez, berriz, lan bila dabilen herritarrei laguntza pertsonalizatua eskaintzea zaie. Bertan, herritar bakoitzak dituen behar konkretuen arabera zerbitzua pertsonalizatua eskaintzen zaie lan irteera eta prestakuntza zerbitzuetan aholkularitza eskainiz. Astearte eta ostegunetan 9:30etatik 14:00etara izaten da zabalik.

UROLANPREST, INFORMAZIOA SAREAN

Eskualdeko enplegu eragileen eskaintza bateratua eta eguneratua eskaintzen da www.urolanprest.eus atariaren bidez ere. Bertan, lan eskaintzak, orientazioa eta prestakuntzaren inguruko informazioa eguneratua aurki daiteke.

Lan eskeintzei dagokionez, eragile desberdinen eskaintzei buruzko

informazio bateratua eta eguneratua aurki daitezke: enpresen lan eskaintzak, beka/ praktikak, eta enplegu publikoa. Orientazioari dagokionez, langabezian dauden edo enplegua hobetzea nahi duten pertsonen zuzendutako zerbitzu guztien informazioa dago eskura. Eta, lanerako prestakuntza aukerak ezagutzeko ataria ere bada. Lana bilatzeko tailerrak, langabetuentzat prestakuntza eta langileen etengabeko prestakuntzaren inguruko informazioa aurki daiteke

KONTAKTUAK

Enplegu zentroa

Kontaktua: Maialen Ituarte
e-posta: enpleguzentroa@iraugiberritzen.eus
Telefonia: 688 75 95 90

Orientazio zerbitzua

Kontaktua: Maite Etxezarreta
e-posta: orientazioa@iraugiberritzen.eus
Telefonia: 688 75 84 94

MAIALEN ITUARTE Orientatzailea



“HERRITARREI ARRETA ESPEZIALIZATUA ETA BANAKAKOA ESKANTZEN DIEGU, DITUZTEN BEHARRAK IDENTIFIKATU ETA LANERATZEKO BEHAR DUTEN EKINTZA-PLANA EDO IBILBIDEA DEFINITZEN LAGUNDUZ”

Sindikatu Zaharreko azken solairuan izaten da Maialen Ituarte herriko langabetuei orientazioa eta lan merkatuan sartu edo lan aukera berriak aztertzen laguntzeko. Azken hilabeteotan, ziurgabetasunak bultzatuta, ohi baino herritar gehiagok jo dute zerbitzura.

Zein da zehazki orientazio zerbitzuan herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua?

Iraurgi Berritzen-ek lana aktiboki bilatzen ari diren herritarrei enplegu eta prestakuntzari buruzko beharrezkoa den informazioa, orientazio eta aholkularitza eskaintzen du. Orientazio zerbitzuak, herritarrei arreta espezializatua eta banakakoa eskaintzen die, dituzten beharrak identifikatu eta laneratzeko behar duten ekintza-plana edo ibilbidea definitzen lagunduz.

Batez ere, zeren bila edo zein asmorekin joaten dira herritarrek?

Behar ezberdinengatik etortzen dira bulegora.

Batzuk, prestakuntzaren inguruko informazio jasotzera; beste batzuk, lan merkatuari eta eskaintzei buruzko informazio bila; gazteak, udarako lan bila edo ikasketak amaitu ondoren egin beharreko praktiken edo gradu

amaierako proiektuen kudeaketan laguntza eske etortzen dira; hirugarren adineko pertsonak zaintzen dituzten langileak esperientzia egiaztatzeko edo gaikuntzari buruzko informazioa jasotzera etortzen dira, etab.

Azken hilabeteetako ziurgabetasunak eraginik izan al du zerbitzuan?

Bai, orokorrean zerbitzuan mugimendu gehiago dago. Langabetuek aparte, ERTE egoeran dauden herritarrek lan merkatuan dauden aukerak aztertzea eta lan eskaintzei buruzko informazioa jasotzera etortzen dira. Datu basean aktibo egoteko beharra handitu da herritarren artean.

Bailarako enpresekin ere harreman zuzena duzue?

Bai, sektore ezberdinetako enpresekin zuzeneko harremana dugu eta enpresei lan eskaintzen eta praktiken bitartekaritza zerbitzua eskaintzen diegu.

Adibidez, iaz, esaterako, Covid-19aren eraginez ezohiko urtea izan arren, 161 lan eskaintza kudeatu ziren eta horietatik 47 zuzenean kudeatu zituen Enplegu Zentroak.

Lan eskaintza eta ikastaro eskaintzaren berri emateko gure erreminta nagusia urolanprest web ataria ere badugu.

Zein profiletako jendeak jo ohi du zerbitzura?

Orokorrean, lana bilatzen ari diren herritarrek. Langabezian daudelako edo lana hobetu nahi dutelako. Horietako batzuk profil altua dute eta lan bilaketan oso autonomoak dira, eta, normalean, ekintza puntualak izaten dira. Baina, badira ikasketarik gabeko edo ikasketa baxuko erabiltzaileak ere, eta horiei lanketa pertsonalizatua egitea proposatzen zaie. Askotan, profil horretako pertsonen IKTak erabiltzeko ere zailtasunak dituzte eta, gaur egun, lan bilaketan horiek erabiltzen jakitea ezinbestekoa da.

Zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen zaie herritarrei. Zein da prozedura?

Hori da, bai. Lanketa pertsonalizatu horretan, erabiltzaileei helburu profesionala definitzen laguntzen zaie eta hori lortzeko dituzten beharrak aztertuz ibilbide bat antolatzen laguntzen diegu.

500.000€ KO SUSTAPEN EKONOMIKORAKO LAGUNTZEN BAITAN, INDUSTRIAREN BERRIKUNTZA ETA EMAKUMEEN KONTRATAZIOAK BEREZIKI BULTZATUKO DITU UDALAK



Covid-19ak eragindako alarma egoerari aurre egiteko eginbeharreko inbertsioetarako eta sortutako kalteak arintzeko laguntzak ere badira aurtengo deialdian

Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea. Horiexek dira Azpeitiko lehentasun eta erronka handienetarikoa azken urteotan. Helburu horrekin, azken urteotan Sustapen Ekonomikora laguntzak onartu ditu, urtez urte. Laguntza horien bidez, herriko ostalariak, merkataria, autonomoak, industria zein ekintzaileak laguntzeko laguntza ezberdinak bideratu ohi ditu. Aurtengo deialdia ere abian da, eta 500.000€ izango dira Azpeitiko ekonomiari bultzada emateko.

lax, laguntzak onartuta baina alegazio epean zirela ezarri zen osasun alarma egoera, eta udalak egoerara egokitu eta laguntzak indartzeko esfortzua egin zuen. Bide horretan, ziurgabetasun handiarekin jarraitzen dugula ikusita, hainbat egokitzapen egin dira, eta iazko aldaketei eutsi egin zaie; tartean kontratazioak laguntzeko deialdiari.

Ekonomia sustatzeko laguntzak 2013. urtean jarri zituen abian Udalak egoera ekonomiko zehatz bati aurre

egiteko helburuarekin. Urte horietako ibilbidean, urtez urte herriko sektore desberdinetako eragileen beharrak aztertu eta herrian dagoen ehun industrial indartzeko baliabideak eskaini dira. Finean, enpleguaren sorrera eta enpresen lehiakortasuna sustatuz, eraldaketa ekonomiko eta soziala ahalbidetu nahi dira; lehiakortasun eta garapen jasangarriagoa izango duten ehun industrial izateko.

“Azpeitiarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko ezinbesteko aldagaia da lana. Bide horretan, azpeitiarrek Azpeitian bizi eta lan egiteko aukerak sortzeko baliabideak jartzea eta neurriak hartzea da gure helburu nagusia”, adierazi du Nagore Alkorta alkatea. Bide horretan, “inor atzean ez uzteko” sektore guztiak lagun-



tzeko konpromisoa du. “Sektore ahulenetan eta kolpatuenetan indar berezia jarri dugu laguntza hauek bideratzerako orduan”, zehaztu du.

Ez ohiko egoeretan neurri bereziak hartu beharra dagoela behin eta berri esan ohi du Alkorta: “Egoera berezi bezain gogorra da bizi duguna. Udala egoerari aurre egiteko ohiko eta ez ohiko laguntzak bideratzen ari da, eta horrela jarraituko dugu, guztiok hemendik irteteko”.

SEKTORE GUZTIENTZAKO LAGUNTZAK

Lehen sektorea, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako bestelako establezimenduak, industria eta ekintzailetza proiektuak garatzeko laguntzak eskaintzen dira. Hala, sektoreen arteko oreka mantenduz bideratuko dira laguntzak. Hala ere, Azpeitiaren motorra industria dela jakitun, bereziki ehun industrial mantendu eta indartzeko bideratuko da diru partidarik handiena. Zehazki, 160.000€ko diru lerroa bideratuko da horretarako. “Herri industrial da Azpeitia. Industria da herriko sektorerik indartsuena eta horrela izaten jarrai dezan, industria berriak Azpeitian ezartzeko eta lanpostu industrialak sortzeko ahalegin berezia egiten ari gara”, azpimarratu du.

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloetako enpresa edo autonomoeta lehen sektorearentzat ere 200.000€ko laguntza bideratuko da. Osasun alarma egoeraren eraginez bereziki kolpatutako sektorea izan da merkataritza eta ostalariena. Eragindako kaltea leuntzeko bestelako hainbat neurri eta laguntza bideratu ditu udalak, azken urtean, baina sustapen ekonomikora laguntzen baitan ere, bertako produktuak eta herriko merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko konpromisoari eutsi dio. “Nekazaritza, merkataritza zein ostalaritza negozioak baino gehiago dira; gure herria bizi mantentzeko ezinbez-teko giltza dira”.

EMAKUMEEN KONTRATAZIOAK HELBURU

Osasun alarma egoerak eragindako langabeziaren gorakada emango zela aurreikusita, iaz, azpeitiarrak kontratatzeagatik laguntza lerro bat bideratu zuen udalak. Aurten gainera, bereziki bultzatu nahi da emakumeak industrian kontratatzea; horregatik, kontratazio horiek bereziki lagunduko dira. Kontratazio horiek bultzatzeko, 75.000€bideratuko dira. “Langabezia datuen atzean dauden datuak xehe-tuz gero, nabarmena da emakumeen langabezia tasa gizonena baino handiagoa dela; 4 puntu altuagoa da, zehazki. Horregatik, bultzatuko dira gehiago emakumeen kontratazioak.

Horretaz gain, 45 urtetik herritar guztien kontratazioak ere bereziki lagunduko dira lerro honen bidez”, gaineratu du Alkorta.

Lan munduan berdintasuna sustatzeko enpresetan berdintasun planak egitea eta berdintasun bidean eginiko inbertsioetarako laguntzak ere bideratu dira.

EKINTZAILETASUNA BULTZATUZ

Herritarren ekintzailetasuna laguntzen baitan, bereziki gizarte ekonomian eta izaera estratagikoa edo berritzailea duten jardueretan enplegua sortzeko aukerak bultzatuko dira diruz. Lerro honen bidez, 65.000€ bideratuko dira. Berrikuntza gisa, energia berriztagarrien kooperatiba bateko bazkide gisa alta ematea ere diruz lagunduko da.

IAZ, 101 PROIEKTU

Bide horretan, iaz, adibidez, Sustapen ekonomikorako laguntzetara 102 proiektu aurkeztu ziren, eta, horietatik 101 lagundu ziren diruz.

30 proiektu merkataritza eta lehen sektore bideratutakoak izan ziren; 29 proiektu industria proiektu estrategikok ere jaso zuten laguntza; ekintzaileen 16 proiektu lagundu ziren; eta laguntza honen bidez 26 azpeitiar kontratatatu ziren herriko enpreetan.



LEHEN SEKTOREA ETA ZERBITZUENTZAKO LAGUNTZA

Merkatari, ostalari, lehen sektore eta zerbitzuetako negozioei zuzenean eragin die osasun alarma egoera betetzeko protokoloek. Kalte hori arindu eta bertako produktuen sustapena eta herriko merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko 200.000€ko linea du abian Udalak.

1- Merkataritza eta zerbitzuetako lehiakortasuna eta lehen sektorea sustatzeko ekintzak

- Lehen sektoreko herriko produktuen kontsumoa.

Talde desberdinek antolatutako jardueretarako bertako produktuak

kontsumitu edo sustatzean, proiektuaren %50a lagunduko da diruz; gehienez ere 400€. Herriko taberna eta ostalariak lehen produktuak modu iraunkorrean erosteagatik, gastuen %20a lagunduko da diruz; gehienez ere 2.000€.

- Lokalek edo komertzioek burutzen dituzten jarduerak edo inbertsioak egokitzeko eta behar berrietara moldatzea (adibidez: lokalak handitzea, negozio lerro berriak sortzea, erakusleihoak berritzea, produktuak merkaturatzea, etabar). Inbertsioen %30a lagunduko da, gehienez ere 1.000€ arte.

- COVID-19aren eraginez hartu beharreko prebentzio neurriak ezartzeko egindako gastuei aurre egiteko laguntza (beharrezko EPlak, hidrogelak, manparak eta antzekoak jartzea, lokaletan egin beharrezko obrak eta antzeko hornidura nahiz lanak). Beti ere osasun prebentzio neurrien betetzeari loturiko gastuen %50a lagunduko da; gehienez ere 1.000€arte.
- Digitalizaziorako tresnak sortzeko edo mantentzeko laguntzak; hala nola web orrien eraketa eta mantenua lagunduko da. Establezimenduei online ikusgarritasuna emango dioten tresnak



“ALARMA EGOERAK ZUZENEAN ERAGINDAKO SEKTOREAK IZANIK, LERRO HONETARAKO BIDERATUTAKO LAGUNTZA BIDERKATU EGIN DA ETA 200.000€KO AURREKONTUA DU”

sortzea eta mantentzeko (web-orria, bloga, online salmentarako plataforma, ordainketa-pasabidea, bezeroen kudeaketa -CRM, online ordainketen kudeaketa...) laguntza da. Inbertsioen %50a lagunduko da, gehienez ere 1.000€ arte.

- Ticket Bai sistemaren aholkularitzarako eta/edo ezarpenerako laguntza. Diruz lagunduko dira egin beharreko inbertsioa eta hura ezartzeko behar den aholkularitza. Gehienez ere, gastuen % 50a lagunduko da diruz; 1.000€ arte.

2- Lehenengo sektorea ezarri, eraberritu edo finkatzea

Lehenengo sektoreko enpresak ezarri, eraberritu edo finkatzeko inbertsioak sustatu nahi dira. Gehienez 2.000€-ko diru-laguntza emango da proiektu bakoitzeko. Honako helburuak lortzeko asmoz bideratuko da lerroa:

- Nekazaritza ustiapenen lehiakortasuna eta ingurumen arloko jasangarritasuna hobetzera bideratutako jarduketak bultzatzea.

- Nekazaritza-ustiapenetara nekazari gazteak sartzeko ahalbideratzea

3- Merkataritzako, zerbitzu eta lehen sektoreko jarduerak jartzea eta eskualdatzea

Merkataritza-jarduerari jarraipena ematen dioten eskualdaketa eta lehenengo sektorekoak jartzeari gehienez 3.000€ko diru-laguntza emango zaio.

4- Azpeitian merkataritzako, zerbitzuetako eta lehen sektoreko jarduera berrientzat zuzendutako lokalen alokairuak

Diru-laguntza hori oinarri hauekin ezarritako baldintzen arabera

emango da, onuradunak gutxienez 12 hilabetetan izandako alokairu-gastua kontutan hartuta eta betiere, baldintza horiek denboratarte horretan mantentzen badira. Gehienez, alokairuaren % 50a lagunduko da; 1.000€-ko zenbatekoa arte.

5- Azpeitian kokatutako merkataritza eta zerbitzuetako establezimenduen merkatu azterketak egiteko laguntza

Merkataritza establezimenduen merkatu azterketak egitea diruz lagunduko da, gastuen %80a bitartean; gehienez 1.000€ arte.

6- Covid 19aren ondorioz kalteak izan diren ostalari eta merkatarientzat alokairurako laguntzak

Covid 19a dela eta ezarritako alarma egoeraren ondorioz sortutako kalteak arintzeko asmoz, ostalari eta merkatariek alokairurako laguntza eskatzeko aukera izango dute. 2021ean jasandako alokairuaren %50a lagunduko da, gehienez ere 1.000€.

INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKO ETA BERRITZAILEAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK

Industria-proiektu estrategiko eta berritzaileak, genero-berdintasunerako neurriak, ingurumen-jasangarritasunaren sustapena, inbertsio proiektuak eta jarduera berriak Azpeitian bideratzea eta enplegu-sorrera sustatzeko lerroaren bidez, 160.000€-koa laguntza lerroa du abian udalak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako ataletan sartuko diren proiektuak izango dira:

1. Digitalizazioa bultzatea. Enpresetarako industria-proiektu estrategiko eta berritzaileak exekutatu eta garatzea.

2. Inbertsio eta jasangarritasuna. Instalazioak egokitu edo erosteko inbertsioak egitea, edota ekipamendu tekniko eta teknologikoak erostea.

3. Industria berria. Industria-jarduera berriak modu finkoan Azpeitiko udalerrian ezartzea.

4. Berdintasuna. Genero-berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzea, berdintasun-planak eginez eta instalazioak egokitzeko inbertsio zehatzak bideratuz.

LAGUNTZA JASO DEZAKETEN PROIEKTUAK

1. Proiektu industrial estrategiko, berritzaile eta interes publikoak dutenen digitalizazioa

Enpresa-proiektu estrategikoei edota herriarentzat interesa dutenei, gehienez 8.000€ko laguntza emango zaie, proiektuko eta enpresako digitalizazioa bultzatu eta sustatzeko helburuarekin.

2. Inbertsio eta jasangarritasunerako laguntzak

- Instalazioak egokitzeko inbertsioak, eta/edo ekipamendu tekniko eta teknologikoa erosteko, 10.000€arteko laguntza emango da.
- Autokontsumo elektrikorako energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioa egitea, 10.000€ arte lagunduko da.

3. Azpeitiko udalerria industria-jarduera berriak modu finkoan ezartzea

Azpeitian industria jarduera berri bat ezartzeko egindako inbertsioak ere lagunduko dira; gehienez ere 50.000€ko dirulaguntza jasoko du.

4. Genero-berdintasuna bultzatuko duten Berdintasun-Planak eta inbertsioak egitea.

- Enpresak bere Berdintasun Plan egiteko 1.000€ko laguntza emango da gehienez, plan bakoitzeko.
- Emakumeentzako instalazioak egokitzeko inbertsioak egitea: aldagelak, bainugelak dituzten aldagelak... Inbertsioen %60a arte izango da lagungarria; beti ere 5.000€ izango da gehienezko kopurua.

EKINTZAILETASUNA

Ekintzaitza sustatuz, bereziki izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enplegua sustatu nahi da diru laguntza lerro honen bidez. Horretarako, 65.000€ bideratuko dira eta 2020ko azaroaren 1etik 2021eko urriaren 31 bitartean sortutako ekintzaitze berriek jaso ahal izango dute.

• Edozein izaera juridikopean sorturiko enpresa-jarduera sortzeagatik, jarduera burutzen duena pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa dela ere, gehienez 2.500€ko dirulaguntza jasoko du.

• Edozein izaera juridikopean sortzen den enpresa-jarduera gizarte ekonomikoa bada (lan elkartuko kooperatibak, luraren ustiaketa komunitariorako kooperatibak eta lansozietateak), 5.000€ arteko dirulaguntza jaso ahal izango du.

• Energia berriztagarriak ekoizteko kooperatiba batean bazkide gisa alta emateagatik. Inbertsioaren %75a arteko laguntza jasotzeko aukera emango da, gehienezko zenbatekoa 1.500€ izanik.



AZPEITIAKONTRATAZIOA BULTZATZEKO LAGUNTZA

Lehen sektorean, zerbitzuen arloan eta industriari bereziki lagundu nahi die lerro honen bidez udalak. Arlo horretako enpresak laguntzeaz gain, ordea, lana sortu eta herritarrei lan baldintza duinak eskaintzeko baliabideak ipintzea da helburua. Horretarako, 75.000€ko laguntza lerroa bideratu du Azpeitiko Udalak.

Aldi baterako, gutxienez hiru hilabeterakoak, nahiz kontratu mugabeak lagunduko dira. Ez da kontuan hartuko enpresaren langile kopurua laguntza ematerako orduan eta gehienez ere bost kontratazio lagunduko dira enpresako.

Bete beharreko baldintzak

- Kontratatu behar den langilea azpeitiarra izatea (Azpeitian erroldatuta egotea)
- Entitatearen sozietate-egoitza Azpeitian izatea.
- Sozietatearen egoitza Azpeitian ez balego ere, kontratazioa Azpeitian kokatutako lantegirako egitea.



“BEREZIKI
LAGUNDUKO DIRA EMAKUMEEN
ETA 45 URTETIK GORAKO
AZPEITIAKONTRATAZIOAK”

Laguntza, zenbatekotan

Sortutako lanpostuetarako kontratuaren epealdia eta lanaldia aintzat hartuta emango dira laguntzak. Beti ere, kontratu mugagabe eta lanaldi osokoak gehiago lagunduko dira. Hala, lehen sektore, zerbitzu eta industrian lanpostu berriak sortu eta azpitarr langabetuak kontratazioetatik 500 eta 2.000€ arteko laguntzak jasotzeko aukera izango da kontratu bakoitzeko.

Emakumeen kontratazioei bultzada

Langabezia tasari erreparatuz, gizonen eta emakumeen arteko aldea nabarmena dela ikusirik, emakumeen kontratazioa bereziki bultzatzeko neurriak ere hartu nahi ditu udalak. Hala, laguntzen zenbateko guztiak handitu egingo dira emakumeak kontratatzen diren kasuetan. % 50 handituko dira kontratazioa industria-sektorean egiten bada. Emakumeen kontratazioez gain 45 urtetik gorako langabetu azpeitiarrak kontratatzeak ere %25eko laguntza gehigarria izango du.

Eskaerak egiteko

Eskaerak egiteko epea:
Urriak 31 arte.

Eskaerak egiteko laguntza

Diru laguntza desberdinetarako laguntzak maiatzaren erditik urriaren 15era bitartean aurkezteko aukera izango da. Laguntzen tramitazioak egiteko baliabide faltak inor laguntza eskatu gabe ez uzteko, Azpeitiko Udalak Azpeitia Berritzen eta Iraurgi Berritzen garapen agentziaren bidez laguntzak eskatu zein zuriaketarako aholkularitza eta laguntza eskaintzen du. Beraz, laguntzaren batean interesa duen orok bi erakunde horietara jo dezake informazioa eskuratu, zalantzak argitu eta eskaerak bideratzeko.

Azpeitia Berritzen

Lehen sektore eta zerbitzuetako laguntzetarako laguntza eskaintzen du.

Telefonoa: 943-15 71 83

e-posta:
iazpeitiberritzen@azpeitia.eus

Iraurgi Berritzen

Industria, ekintzailatza eta kontratazioetarako laguntza eskaintzen du.

Telefonoa: 943-02 60 69 edo 943- 85 11 00

e-posta:
info@iraugiberritzen.eus

azpertia Zaindu



Adi!

Badatoz
tokiko ekonomia
sustatzeko
bonoak

